

HORMA BATEKO ZAILTASUNA GAINDITZEKO DESAFIOA

Kirol eskalada Tokio 2020 Olinpiar Jokoetan sartu izanak etapa berri bat irekitzen du modalitate honentzat, begirada lehiaketako parte izango diren hiru kategorietara (boulder, zailtasun eskalada eta abiadura) zuzentzeaz gain. Aukera ona da, zalantzarik gabe, disziplina honek gure herrian izan duen bilakaera aztertzeke.

1987ko maiatzaren 24an ospatu zen Euskal Herrian estraineko eskalada lehia. Denbora gutxian, orduko gazte talde bat kirol eskaladaren oso zale bilakatu zen, eta berrikuntza teknikoez baliatuz, geroz eta zailtasun maila altuagoak gainditzeko gai izatera iritsi ziren. Kontuan hartu behar da, baita ere, gure mendietan horma ezinhobeak daudela zorionez, aparteko eskalada eskola bilakatu zirenak.

Ale honetan gure lurraldeko eskalada biderik sonatuenak hartu ditugu hizpide, gure hormetako lerroak izen iradokitzailez apainduriko zailtasun maila altuko bilduma bilakatu zituztenak. Bide batez, euskal kirol eskalada nazioartean ezagun egin zuten kirolari horietako batzuk ere hartu ditugu gogoan. Belaunaldi ausarta bezain apala, pasioa bizimodu bilakatu zuena. Komeni da izen horiek gogoan hartzea, nondik gatozen eta nora goazen argi izan dezagun. Gure eskalada guneak ezagutu eta zaintzea ere, noski, ezinbestekoa da. 80. hamarkadan euskal lehiaketak hasi zirenetik, ezinbestekoa bilakatu da eskalada guneetan jasangarritasuna, errespetua eta giza eremuarekin eman beharreko bizikidetzaren bezalako baloreak lantzea. Gipuzkoako Mendi Federazioak bultzatzen duen proiektua da horren adibide, zeinak eskalada jasangarria duen helburu. Proiektu honek sariak eta onarpen zabala jaso ditu estatu mailan.

Gure aurrekoak aipatzen hasita, ezin oharkabean pasa Loli Lopez Goñiren heriotza. Eskalatzailer eta alpinista handia izan zen Loli. Cervino mendira iritsi zen lehen euskal emakumezkoa izan zen, baita emakumezko bakarra ere, 1959an sortu zen Euskal Goi Mendi taldeko talde sortzailean. Garai hartan inolako erreferenterik ez zegoen emakumezkoentzat, eta ez zen erraza eurentzat mendietara iristea. Benetan txundigarria zen bere gaitasun alpinistikoa, eta euskal mendizaletasunaren historia bilakatu da. Lolik orduko aitzindari haien onena irudikatzen du, estereotipo andana gainditu behar izan zituztelako, presio kultural handia jasateaz gain. Mendian, aske mugitzeko eremu bat aurkitu zuten. Ez dugu ahaztuko.

DIRECTORA DE
PYRENAICA

PYRENAICA
ALDIZKARIAREN
ZUZENDARIA



Luisa Alonso Cires

EL DESAFÍO DE SUPERAR LA DIFICULTAD DE UNA PARED

La inclusión de la escalada deportiva en los Juegos Olímpicos de Tokio 2020 abre una nueva etapa para esta modalidad y dirige todas las miradas hacia las tres categorías (boulder, dificultad, velocidad) que formarán parte de la competición. Una buena ocasión para echar una ojeada a la historia de esta disciplina en nuestro territorio.

El 24 de mayo de 1987, se celebró en Egin (Araba) la primera competición de escalada en territorio vasco. En poco tiempo, la escalada deportiva había calado en un grupo de gente joven que se iba adaptando a las importantes innovaciones técnicas introducidas en esta modalidad para superar niveles de dificultad inimaginables tiempo atrás. A ello ayudó la existencia en nuestras montañas de paredes que se convirtieron en extraordinarias escuelas de escalada.

En este número hacemos memoria de las vías más emblemáticas de nuestro territorio, aquellas que convirtieron las líneas de nuestras paredes en un desplegable de nombres sugerentes y de grados máximos. Y recordamos a una parte de quienes consiguieron que la escalada deportiva vasca fuera conocida a nivel internacional. Una generación tan osada como discreta, que convirtió su pasión en un estilo de vida, y cuyos nombres conviene recordar para saber quiénes somos y de dónde venimos.

También nos conviene conocer y cuidar nuestras áreas de escalada. Desde aquellos años ochenta en que empezaban las competiciones en las paredes vascas, las zonas de escalada se han convertido en espacios necesitados de las ideas sobre sostenibilidad, respeto y convivencia con el entorno humano. Un buen ejemplo de actuación es el proyecto sobre escalada sostenible liderado por la Gipuzkoako Mendizale Federazioa, que recientemente ha obtenido premios y reconocimientos a nivel estatal.

Hablando de quienes nos precedieron, de nuestros referentes, no nos olvidamos de Loli López Goñi, escaladora y alpinista, recientemente fallecida. Fue la primera mujer vasca que llegó a la cima del Cervino y la única en el grupo fundador de la primera escuela vasca de Alta Montaña en 1959. En un tiempo en que las mujeres carecían de referentes y tenían serias dificultades para acceder a las montañas, su actividad alpina es realmente asombrosa y la ha convertido en parte de la historia del montañismo vasco. Loli representa lo mejor de aquellas pioneras que superaron estereotipos y presiones culturales para encontrar en las montañas un espacio en el que moverse libres y a su aire. No la olvidaremos.